


hurbiltzen

ARAUATEGIA



hurbiltzen

HURBILTZEN

[arautegia]

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa –Garaia y la Behea- eta Zuberoa herri bat osatzen dugu, eta zilegi da elkarrekiko interesak elkarrekin jartzea.

HURBILTZEN ekimena Euskal Herriko udalerrien arteko senidetze akordioak bultzatzen duen egitasmoa da. Euskal udalerrri eta hiritarrak harremanetan jartzea du helburu, elkar ezagutu eta maitatzeko, elkarrekin lan egiteko eta elkarren arteko balioak eta asmoak partekatzeko.

Bestela esanda, urratsez urrats gure elkarrekikotasun harremanak, herri berekoak garelako sentimendua, garatu eta aberastea. Izaera irekia eta parte-hartzailearen bidez. Europako integrazio prozesuarekin bat eginez, mugak alde batera utziz eta elkartasun loturak eta elkarren arteko ezagutzean oinarrituz.

Egitasmo honen antolaketa Arautegi honetan oinarrituko da:

1. Atala. Helburuak

a) Euskal Herriko gehieneko udal eta herritar tartean sartuz senidetze egitasmo zabala martxan jarri, ezaguera, harremana eta ideiak, egitasmoak eta produktuen trukea laguntzeko.

b) Udal, ekonomiko, gizarte eta kultural erakundeen arteko elkarlanen egitasmoak bultzatu.

c) Euskal Herrikoak nazio bereko kideak garen irudia indartu.

2. Atala. Protagonistak

a) Ekimen honen partea hartzaileak euskal herritarrak dira, bere eguneroko ekintza, beraien lanbide, kultural, ekonomiko edo aisia ekimeneen bidez, banaka nahiz antolatuta gisan (enpresa, elkarteak eta abar).

b) UDALBIDEko udalerrri kideak herritarren arteko harremanetako bultzatzaileak eta artekariak izango dira.

c) UDALBIDEtik kanpo dauden herritar eta udalak kontutan izango dira ekimen honen helburua orokorra eta unibertsala delako.

d) Halaber, Euskal Herritik kanpo beste nazioetako udalerrriak ekimen honetan barne daude, bereziki euskal Diaspora finkatutako lekutan, edo Euskal Herriarekin harreman historiko, kultural edo ekonomiko garrantzitsua duten udalerriek.

3. Atala. Parte Hartzaileak

a) Senidetze guzietan Iparralde, Nafarroa eta Euskal Autonomi Erkideko udalerrri bat egotea da helburua, ahal den arabera. Egitarauak helduak izango direnean zazpi udalerriren senidetzea bilatuko da, bat zazpi euskal herrialde bakoitzagatik.

b) Batzuetan, orain badiren senidetzeak hartuko dira eta HURBILTZEN ekimenaren barna haien garapena erraztuko da, beste udalerrri gehitzen.

c) Egitasmoan udalerrri parte hartzaileak aukeratzeko, udalek duten jakin mina, senidetzeak aurrera eramateko erraztasun praktikoa, izaten ahal duen ondorio erakusgarria eta HURBILTZENen filosofia garatzeko errazten duten hainbat gai kontuan hartuko dira.

4. Atala. Senidetze egitasmoen edukia

a) Ekimenak sendoak eta iraunkorrak izan beharko dira. Helburua udalen eta herritarren arteko elkarlan integrala izango da, Senidetze Batzordeen lanean oinarrituz.

b) Elkarlanaren gai garrantzitsuena, senidetzeen eragilea, Gazteria izango da, bere ikuspegi guztiak kontutan harturik: hizkuntza, kirola, folklorea, eta abar.

Gai hauen elkarlana baita bultzatuko da:

- Udal-kudeaketa.
- Euskara (udalen euskara zerbitzua, euskaltegiak, murgiltze linguistikoa, eta abar)
- Hezkuntza (ikastetxeak, ikasleak eta irakasleak)
- Ingurunea, garapen jasangarria.
- Turismo eta aisia.
- Garapen ekonomikoa eta enpresak.
- Kultura (kantua, musika, antzerkia, dantza, zinema, museoak, arte plastikoak, eta abar).
- Gastronomia eta nekazal produktuak.
- Eskulangintza.
- Kirola.
- Ohiturak.
- Hirugarren aroa.

5. Atala. Hitzarmena UDALBIDEREkin eta Senidetze Adierazpena

a) Udal bakoitzak izango dituen elkarlan harremanak bideratzeko oso modu eta bide ezberdinak izan daitezke. HURBILTZENek elkarlan librea bultzatuko du antolatuz eta iraunkortasuna emanaz. Horretarako, alkate parte hartzaileek emango duten lehenengo urratsa UDALBIDEREkin Hitzarmena sinatzea izango da (1. Gehigarria), elkarlan eta kolaboraziorako kontaktuak hasteko gogoia adierazten. Hitzarmen honek Udalerri guztien elkarlanerako borondatea egiaztatzeko balioko du.

b) Senidetze udalerri parte hartzailek, egitasmoarekiko duten jakinmina adierazi ondoren, Senidetze Batzordea osatuko dute, elkarlanerako arlo garrantzitsuenak erabakiko dituzte, urtean zehar elkarrekin egingo dituzten egitasmoak eta hori bideratzeko behar den aurrekontua baita.

c) Dagozkion udalek, ezagutze eta elkarlanaren garapenak uzten duenean, Senidetze Hitzarmena idatzi, onartu eta sinatuko dute, udalerri senidetuen erlazioen oinarria izango delarik.

6. Atala. Senidetze Batzordeak

a) Dena den, gero eta lasterrago osatuko da Senidetze Batzordea eta gero eta zabalagoa hobe, udalerri bakoitzeko pertsona aipagarriak eta elkarteak ordezkariek osatuta.

b) Batzorde honek udalerri senidetuak egingo dituzten elkar egitasmoak eztabaidatu, antolatu eta garatu izango du helburu.

7. Atala. HURBILTZENen aholkularitza

a) Programako udalerrri parte hartzaileei aholku zerbitzuak ematea da UDALBIDEren lanaren barruan HURBILTZEN ekimena duen garrantzia handienetariko bat.

b) Aholkularitza era askotakoa da, udal parte hartzaileen beharren arabera, baina hauetan laburtu daitezke:

- Senidetzeak sortzeko informazioa erraztu.
- Eginak dauden senidetzeak bultzatu eta proposamen berriak eman.
- Udal parte hartzaileei aholkularitza iraunkorra eman.
- Finantziario formula osagarriak bilatu (Eskualdeko Gobernuak, Europa Batasuna, enpresa pribatuak, eta abar).

8. Atala. Udal parte hartzaileen ardurak eta konpromisoak

a) Bion arteko harreman serio eta sendoa garatzeko, HURBILTZEN bere senidetze egitasmoan udalen elkarlana bultzatu nahi du. Horretarako, udalerrri hartzaileek lan honek daraman konpromisoa eta hartzen duten ardura argi izan behar dute.

b) Senidetzea gauzatzeak lan zehatz bat sortarazten du, udalaren ekimenen egitasmoaren barnean gehitzeko arloa izanez. Lan egiteko eta egitasmo honetan sartzeko beharrezko borondatea izan behar du udalak.

c) Udal eta udalerrriko ekimen guztietan senidetzearen agerpena egon behar du.

d) Udalerrri bakoitzak lortu nahi duen onura beste udalerrrien onuraren osagarria izan beharko da. Ikasteko eta irakasteko balio behar du.

e) Senidetze egitasmoen parte hartzea denboran zehar iraunkorra izango da.

f) Udal bakoitza udalerrriaren biztanleriak eta gizarte indarrek parte har ditzaten saiatuko da.

9. Atala. Finantzazioa

a) Udal bakoitzak elkarlaneko egitasmoen garapenak kostatzen duena ordaindu beharko du, nahiz eta UDALBIDERENren eta beste erakunde publikoen eta pribatuen laguntza izan.

b) Egitarauen hasierako gastuak. Udalerri guztiek egitarau honetan sartzeagatik gastu batzuk jasan beharko dituzte. Lehenbiziko bilerak, bisitaldiak, kudeaketak, etab., neurtzeko zailak diren gastuak daramatzate. Talde bakoitzaren tamaina eta egitasmoa kontutan hartu gabe. 5. atalean aipatutako Hitzarmena sinatu dituzten udalerriei, diru kopuru hau, dena batera ordainduko zaie.

d) Ohizko topaketen gastuak. Beraien udalerriko senidetzerako lanean ari den udal talde bakoitzak, bilerak ospatuko dituzte udalerrri bakoitzean lehengo kontaktuak eta ezagutzeak izateko. Topaketa hauen ospakizunak bidai eta harrera gastuak sortaraziko dituzte. UDALBILTZAk honen bidez lagunduko du:

e) Ez ohizko proiektuen gastuak. Bere eragina eta esparrua ohizkotasunetik kanpo gelditzen delako mota honetako egitasmoen gastuak aurrez ikustea ezinezkoa da. Udalerrri interesatuak UDALBIDERi aurkeztuko dizkiote komenigarri iruditzen zaizkien egitasmoak eta dagokion finantzazio eskaera, dagokion seihilekotan estudiantuta eta bideratuta egongo delarik.

f) HURBILTZENeko teknikariek senidetze egitasmoetan dauden udal parte hartzaileei aholkularitza eta beste subentzio publiko eta pribatuetarako tramitazioa erraztuko dizkiete: eskualdeko gobernuak, Europa Batasuneko Senidetze Egitasmoa, Europa Batasuneko Gazteriarako Egitasmoa, fundazioak eta enpresa pribatuak.

10. Atala. UDALBILDEko dirulaguntza jasotzeko baldintzak

a) HURBILTZENeko egitasmoaren bitartez UDALBIDEn diru laguntza jasotzeko nahi duten udalerriek, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Harremanetan egotea eta,
- UDALBIDEREkin Elkarlan Hitzarmena sinatuta izatea

Oro hark Senidetze Hitzarmena sinatzea izango du helburu, senidetzearen helburuek UDALBIDEkoekin bat egiten badute kontuan izanik.

b) Ordainketa guztiek HURBILTZENeko teknikarien aldeko txostena beharko dute.